

Dayneris del VAL Fidel Castro hil den urtea

Xabier Izaga Gonzalez

Abenduaren 3an GAUR8ko erreportaje batek azaldu zuenez, Kubako agintariek ez zuten Fidel Castoren gorpua erre, hark hil baino lehen hala eskatuta, nortasunaren gurtza Iraultzaren helburu eta balioen aurkakoa zela irizten baitzuen. Hil ondoren ere koherente izan nahi zuen, nonbait, gaztetan hautatu eta bizitza osoan eutsi zion bidearekin. Izan ere, Kuban ez da inoiz agertu publikoki Fidelen irudi ofizialik ez txanponetan ez billeteetan ez monumentuetan; ez dago haren estatuarik, ezta haren izena duen kalerik ere. Egitate hori, beste hainbat bezala, ez dator bat Mendebaldeko propaganda hainbat hamarkadatan hedatzen saiatu izan den irudiarekin, bere herriaren bizkar aberastu den diktadore zapaltzailearen irudiarekin, alegia.

Historiografiak eskuarki inperioen eta herrialderik boteretsuenen balentriak nabarmentzen ditu –tartean baita horrela izendatutako sarraskiak ere-. Eta, salbuespenak salbuespen, nekez aipatu ohi ditu herrialde txikiek gizateari egindako ekarpenak. Horietako bat Nelson Mandelak gogorarazi zuen 27 urteko kartzelaldia atzean utzi berritan, Fidel bere lagun kutunari eskerrak emateko Kubara egin zuen bisitan. Han, esker ona erakutsi zuen Angolan, *apartheid* sistemaren aurkako borrokan, milaka soldadu kubatarrek isuritako odolean sendotu zelako Hegoaldeko Afrikaren askatasun hazia. Munduko hainbat agintarik Kubara joatea ez zela «komenigarria» ohartarazi zioten Mandelari, baina hiru urte geroago Hegoafrikako presidentea izango zenak ez zuen zalantzarik ñimiñoena ere egin: «Gizon leiala naiz, eta ez dut inoiz ahaztuko *apartheid*-aren aurkako borrokan, gure aberriaren unerik ilunenetan, Fidel Castro gure ondoan izan zela». Hain zuzen ere, Fidelen ibilbidetik ikasia zuen Mandelak leialtasuna. Hegoafrikaren «unerik ilunenetan» onenean beste aldera begiratzen zuten haiek, ordea, ez zuten «leialtasun» hitzaren esanahia ulertzen.

Bisita haren ondorengo urteetan jaio zen Dayneris del Val Cardenas, Habanan. Duela lau urtez geroztik Euskal Herrian bizi da. Gizarte Komunikazioan aditua da eta ondo moldatzen da euskaraz, ikasten jarraitzen badu ere. Lanaren eta egunotako ospakizunen arteko zirri-

«Aldaketa Kubako herriak bultzatu behar du, kanpoko inolako esku hartzerik gabe»



Argazkiak: GAUR8

kitu bat baliatuta, munduko pertsonaia politikorik garrantzitsuenetakoa izan denaren heriotzaz eta ondo bizirik segitzen duen bere herriaz mintzatu da GAUR8rekin. Haren ustez, Fidel erreferentzia bat da Kuban eta mundu osoan, eta gidatu zuen Iraultzak, bere gabeziak gorabehera, egin beharreko aldaketak egingo dituela dio, bere printzipioak galdu gabe, Kubako herriak bultzatuta eta kanpoko esku hartzerik onartu gabe.

Zer izan da Fidel Kubarentzat, kubatarrentzat?

Erreferentzia bat, komunikatzen zekien lider bat.

Eta munduarentzat?

Saihestu ezineko pertsonaia.

Ukaezina da herrialde txiki bateko presidentea XX. mendeko pertsonaia politikorik garrantzitsuenetakoa izan dela.

Hala da, zalantzarik gabe. Eta Hego Amerikako herrialdeentzat, eredu bat izan da, batez ere Iraultzaren hasieran ezarri zuen politikagatik; hezkuntza, kultura, osasuna... eman zizkion herriari. Eta kontzientzia.

Kubatarrentzat ba al zegoen oro har agintarien eta Fidelen arteko alderik?

Nik ez dakit hori, Iraultzaren azken urteak bizi izan baitituz.

Diotenez, Iraultzak gizarte eta nazio arloetako borrokan arteko identifikazioa lortu zuen.

Bai, erabat. Goitik beherakoa izan zen lotura hori.

Barneratuta al daude Kuban Iraultzaren balioak?

Hastapenekoak bai, jakina. Batez ere elkartasuna, gizatasuna, herriarekiko maitasuna, internazionalismoa...

Kubak elkartasuna esportatu izan du eta esportatzen du: 60ko eta 70eko hamarkadetan Afrikako eta beste zenbait lekutako askapen mugimenduak sostengatu zituen, eta osasun eta hezkuntza arloan ere laguntza oparoa eskaini izan du. Uste al duzu eskuzabaltasun hori aitortu diotela?

Lau urte daramatzat Kubatik at, baina esango nuke baietz, leku askotan estimatzen dela hori, batez ere Euskal Herrian. Horretan antzekoak gara.

Fidelen diskurtso luze-luzeak ere ezagunak dira, eta batzuetan bera nabar-



men uzten saiatzeko erabili izan dituzte; hala ere, inork, ez du ukatu bere gaitasun intelektuala.

Eta zein da galdera?

Kubatarrok sumatzen al duzue Fidelen gaitasun hori? Zer zen Fidel, bertako liderra, besterik gabe, ala munduko liderrik esanguratsuenetako?

Munduko liderrik nagusietakoa, zalantzarik gabe. Agian ez zen beso luzeko lider horietakoa izango, munduan gauzak aldatzeko ahalmena duten horietakoa, baina bai kontuan hartzekoa. Kritikatua ere izan da, jakina, hori ere ondotxo dakigu kubatarrok.

Hainbat kubatarrek «aldi berezia» birtarte Kuba paradisua zela esaten omen dute. Orain jende asko soldata txikiak direla-eta kexu da. Gazteak gauza gehiagorengatik. Zerikusia al du «aldi berezia» ezagutu ez izanak?

Nik ez nuen bizi izan garai oparo hori, eta ez dakit zer esan. Baina gaur egungo gazteen kexuak beste kontu batzuegatik dira, ez iraganeko erreferentziengatik.

«Zer egin du kapitalismoak Sirian? Libian? Israelen benetako demokrazia al dago? Norentzat? Eta Saudi Arabian? Marokon? Egipton? Afrikako edozenbat lekutan, zer egin izan du Europak? 'Demokrazia' ezarri? Distantziak distantzia, Europan bertan ere zulo galantak daude»

«Aldi bereziaren» aurreko garaia ez zenuen bizi izan, baina «aldi berezia» bai, gazte-gaztea zinela. Egoera berezian zeundeten kontzientzia zenuen?

Nik, egia esan, ez. Nik zorte handia izan nuen, nire gurasoei esker; ez nuen ez goserik ez bestelakorik jasan behar izan. Beraiek asko sakrifikatu ziren nitatik.

Hemen esaten ziguten oso gaizki patatzan ari zinetela.

Jakina da urte latzak izan zirela, oso gogorak, eta gizarteak bete-betean pairatu zituen, beraz, kontzientzia eduki behar, nahitaez.

Egoera latz hura Gobernuaren eta Iraultzaren aurkako propaganda tresna gisa erabiltzen zuten.

Nik entzun dudana dakit, eta irakurri dudana. Zazpi-zortzi urte nituen nik orduan. Baina bai, gauza harrigarriak entzun izan ditut, oso tristeak.

Baina ez ziguten esaten une gogorretan ere Kubak munduko hezkuntza

eta osasun sistema onenetakoak edo gutxienez justuenetakoak zituela. Kuban argi zenuten hori?


Hori nabarmena da, agerikoa eta erraz konprobatzeko modukoa. Batak ez du bestea kentzen, ez han ez hemen. Kubatarrok beti izan dugu nahi edo gogo internazionalista hori.

Gaur egun, Kuban badago ekimen pribaturako tartea.

Horretan gabiltza. Hori bai, Kubako herriak eskertuko luke prozesua azkarrago joango balitz. Dena den, ondo pentsatu behar da zer azkartu eta zer ez, lehentasunak jarritz.

Batzuek diotenez, ez da nahikoa, beste batzuen ustez, merkatu-sistemarako trantsizioaren hasiera da, eta, beste batzuek ezetz diote, baina hala izan beharko lukeela.

Gure herriko sistema ez da kapitalista, horregatik, Kubako Estatua beti egongo da adi, merkatu-lega bidezkoa izan dadin, diferentzia sozialak saihestea helburu.



Kubak eutsi egin dio mende erditik gorako blokeoari, baina egin al ditu ahaleginak menpekotasun ekonomikoari aurre egite aldera, esate baterako, produkzio egiturak sortzeko?

Galdera korapilatsua da, luze joko luke hori dena aztertzeak, eta nik ez daukat informazio guztia. Baina, bistan denez, Kubak ez dauka baliabide askorik –edo ez dira nahikoak–, ezta produkzio ahalmen handirik ere.

Eta Fidelen ondoren, zer espero dute kubatarrek, edo zer espero duzu zuk?

Raulek, anaiak, Fidelen eredia jarraitu du, baina berrikuntza batzuk ezarri, azken urteetan egin duen moduan. Aldaketa nabarmenak egin dira, esaterako, jarduera pribatua baimenduz, apustu teknologikoa eginez, turismoa are gehiago sustatuz... Edozelan ere, esango nuke ez dela Fidelek markatutako bide-tik asko aldentzeko.

Batzuek ziotenez, Fidel hil ondoren Kuba «demokratizatu» egingo zen.

Esan dizudanez, aldaketa gutxi espero ditut epe motzean. Nik uste dut sistema kapitalistaren gauza batzuk hartuko dituela Kubak, astiro-astiro, printzipio komunistak erabat galdu gabe. Pena litzateke horiek galtzea, Iraultzak kostata lortu diren balioak sustatzen dituelako.

«Demokratizatu» diot, Mendebaldean hitz hori erabiltzen delako; errealitatean, baina, gakoa merkatu sistemari lotuta egotea dela dirudi, edo, Latino-amerikari dagokionez, Ameriketako Estatu Batuen menpe izatea.

“Demokratizatu” hitza ez dakit nola ulertzen duen kapitalismoak. Irak edo Afganistan “demokratizatu” egin al zizuten? Zer egin du kapitalismoak Sirian? Eta Libian? Israelen benetako demokrazia al dago? Norentzat? Eta Saudi Arabian? Marokon? Egipton? Afrikako edozenbat lekutan, zer egin izan du Europak? “Demokrazia” ezarri? Distantziak distantzia, Europan bertan ere zulo galantak daude...

Aldaketa handirik ez duzula espero diozu.

Jakina, gauzak aldatu behar dira Kuban, bidegabekeriak egon badaudelako. Nola? Noiz? Ez dakit, ez naiz politologoa [barre egin du], baina aldaketa Kubako herriak bultzatu behar du, kanpoko inolako esku hartzerik gabe.

Obamak aitortu zuen blokeoa ez dela inorentzat onuragarria izan, baina



Trumpen interesak ez dira estatubatuarrenak, are gutxiago kubatarrenak. Haren garaipenak bi herrien arteko harreman berria zaputz dezake?

Ez dakit, ikusi egin beharko da, baina Trumppek ez dit konfiantzarik ematen.

1996an, Helms Burton legeak blokeoa gogortu ondoren, Europar Batasunak Kubaren aurkako murrizketak onartu zituen. Orain elkarrizketa eta lankidetzak akordioa onartu du, uhartearen eta AEBen arteko harreman berrien ildotik. Zer iruditzen zaizu?

Garaia zela aldaketa hori egiteko. Europaren paperaz, Kubarekin zein beste hainbat herriekin, arestian esan dizut zer uste dudan...

Kuban emakumeek berdintasuna dagoela esan dezakete, instituzioei dagokienez eta etxeari dagokienez?

Gizarte matxista da Kubakoa, baina, aspalditik, emakumezkoak leku garrantzitsua dauka gizartean, eta, nola ez, etxean. Kubatar emakumeok pertsonalitate eta kontzientzia handia daukagu.

Indarkeria matxistarik ba al dago, hemen gertatzen den antzera?

«Gizarte matxista da Kubakoa, baina, aspalditik, emakumezkoak leku garrantzitsua dauka gizartean, eta, nola ez, etxean. Kubatar emakumeok pertsonalitate eta kontzientzia handia daukagu»



Han ez dira datuak eskaintzen, hementxe moduan. Nire inguruan, behintzat, ez da halakorik gertatu.

Zer-nolako oroitzapena utzi du Fidelen kubatarrengan?

Irlan bizi diren kubatarrek estimatzen zuten, eta, askok, maite-maite, berarekin ados egon ala ez. Bere argilunekin, pertsona hurbila eta komunikatiboa izan zen, eta, zalantza barik, ikur politiko eta historiko galanta.

Raul Castrok 2018an utziko du Kubako presidentetza. Belaunaldi berriei lekua egingo al die?

Ikusteko dago hori. Orain arte Kuban aldaketak oso geldo joan dira, eta etorkizun hurbilean ere esango nuke horrela egingo direla. Baina hortik gora, ezin jakin.

Batzuek Gobernuaren aurkako matxinada batekin amesten zuten. Ez dakit hori pentsatzeko oinarririk ote zegoen. Eta orain?

Niretzat pentsaezina da hori. Etorriko dira aldaketak, badatoz geldiro-geldiro, baina matxinadarik ez dut ikusten, inondik inora.